

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Harakina, lapurra eta “santua”

WWW.GIPUZKOAKULTURA.NET



WWW.PANORAMIO.COM



Ezkerrean, Joaquin Iturbe *Santua*, grabatu baten arabera. Eskuinean Donostiako Urgull mendiko Mota gaztelua; Iturbe iheslari trebea izanagatik, ez zuen Motako espetxetik ihes egitea lortu.

ELGETA (GIPUZKOA), 1758. Joaquin Iturbe *Santua* jaio zen. Luzaroan Ermuko harakina izan zen, gaztetan pirata eta kortsario jardun zuen, eta Farnesioko erregimentuan bederatzi urtez aritu zen, baina bidelapur gisa egin zen Iturbe ezagun.

Gordetako dokumentuek 1796 eta 1799 bitartean elgetarrak egindako okerkeriak biltzen dituzte. 1796ko uztailaren 5ean Eibarko Pagaegi base-riari eraso zion, bederatzi gizonen buru; 600 dukat lapurtu zituzten dirutan, eta beste 400 lanabesetan eta bestelako objektuetan. Handik hiru egunera, Domingo Elberdin mandazain nafarrari egin zioten eraso Deba eta Mutriku arteko Astigarribia ibarrean, baina Elberdinek ihes egitea lortu zuen.

1797ko urtarrilaren 10ean, Gatzaga gainean, Juana Sarribiarte izan zen Iturberen biktimia, eta Juan Antonio San Martin, berriz, Urkiolan, 1798ko martxoan. Urte bereko apirilaren 9an Joaquin Iturbek lankide bati, Eskoriatzako harakinari, behorra eta uhalaria lapurtu zizkion. Handik bost egunera, Ozarrate inguruetan, Melquiades Goiari gainean zeraman dirua eta erlojua ostu zizkion.

Urte horietan hainbatetan atxilotu eta espetxeratu zuten *Santua*, baina elgetarra iheslari trebea zen. Tolosako eta Bilboko espetxeetatik alde egitea lortu zuen, eta Mutrikitik birritan ihes egin zuen. Batzuetan horman zuloa eginez lortzen zuen ihesa. Baina hizlari ona ere izango zen, behin baino gehiagotan, girgiluek min ematen zioten aitzakian, zaindariak aska zezaten konbentzitu baitzituen.

1799ko irailaren 23an Pedro Urkiaren etxean atxilotu zuten, Mallabiako Areitio auzoan, eta itsasoz Donostiara eramane zuten. Handik aurrera ez zaigu Iturberen ekintzen berri iritsi eta, hortaz, Urgull mendiko Motako espetxetik ihes egiterik ez zuela izan uste da. Donostiakoa inguruko kartzelarik seguruena eta gogorrena zen.

Antonio Javier Ajarrista fiskalak heriotza zigorra eskatu zuen Ermuko harakinarentzat, “edozein hiltzeko prest” zegoela argudiatuz. Baina bere espedientearen arabera, Iturbek ez zuen inor zauritu edo hil. Kondairak dio eskopetaren muturra propio okertuta zeukala, arrisku hori saihesteko. Ziurrenik horregatik esaten zioten *Santua* Gipuzkoako gaizkile ezagunenetakoari.

Arrastoak

Unescok
gizateriaren
historia osatu du

HISTORY OF HUMANITY lanaren azken bolumena argitaratu berri du Unescok, mende erdia baino gehiago horretan lanean jardun eta gero. Obrak sei bilduma ditu eta bilduma bakoitzak zazpi bolumen. Guztira 1.600 espezialista baino gehiago aritu dira gizakiaren historia osoa biltzeko ahaleginean.

1947an *Gizateriaren Aurre-
rapen Zientifiko eta Kulturalaren
Historia* biltzeko batzordea
eratu eta 1961ean lehen bolu-
mena argitaratu zen. 1978an
proiektua birplanteatu zuten,
ekimenaren joera eurozen-
trista eteteko –Afrikak, esate-
rako, obraren % 1,5 baino ez
zuen hartzen– eta kontinente
guztietako 26 kideko batzor-
de berria osatu zen.

Hurrengo lana bilduma
Nazio Batuetako hizkuntza
ofizialek itzultzea izango
da, hizkuntza bakarrean bai-
tago eskuragarri. Adibidez,
Karibeko historia ingelesez
dago eta Hego Amerikakoa
gaztelaniaz.

WWW.UNESCO.ORG



History of Humanity lanari
buruzko argibide gehiago
www.unesco.org/culture/humanity/ helbidean.